Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

# RASFF TXOSTENA

## ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

## ELIKAGAIAK

## 2018ko BIGARREN LAUHILEKOA

- Jakinarazpenen kategorizazioa
- Jakinarazpenen jatorria
- Kutsadura iturrien sailkapena
- Kutsatzaile nagusiak eta inplikatutako elikagaiak
- Etiketan adierazi gabeko elikagaiak

RASFF TXOSTENA: Alertak eta Jakinarazpenak
ELIKAGAIAK
2018ko 2.LAUHILEKOA

## JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2018ko bigarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 1098 jakinarazpen izan dira. Horietatik 342 alertak izan dira (%31), 326 informazio-jakinarazpenak (%30) eta 430 mugan egin diren ukapenak (%39).




## JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoa izan dira:




Iturria: Comisión Europea RASFF

**Asia**ri dagokionez, kutsatzaileen **% 23,5a Turkiakoak** dira eta jarraian **Txinakoak: % 20arekin. Europa**ri dagokionez**,** jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdeak **Frantzia % 14**arekin eta **Espainia %13**arekin izan dira**. Afrika**ren kasuan, **Sudan** da gehien jakinari dituena (%**23**a)**. Amerikaren** kasuan, **EEBB** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak **(% 49,5a).**

Bestalde, jakinarazpenen % 0,5a distantziako salmentan (online) izan da.

## KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2018ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1098 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

| Kutsadura iturriak | % |
|---|---|
| Kutsadura biologikoa | %32,5 |
| Mikotoxinak/biotoxinak | %19 |
| Iruzurrak | %14 |
| Hondakinak | %10 |
| Produktuaren egoera higieniko txarra | %7,5 |
| Metal astunak | %7 |
| Kutsadura kimikoa | %5,5 |
| Kutsadura fisikoa | %4,5 |




Iturria: Comisión Europea RASFF

## KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, **% 75,5e**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren **% 38a** eragin du. Kasu gehienetan **(% 36,5a)** kakahuetea **Asiatik** zetorren**.**

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **salmonelek** kutsaduren **% 58a** eragin ditu. ***Salmonella sp*** da talde honetako protagonista nagusia kasuen **% 78e**an. **Sesamoa** izan da produktu protagonista **%38**ko kasuetan, **%84e**ko kasuetan **Afrika** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, % **15**a ***Salmonella enteritidis***i dagokio (**oilaskoa**k eragin ditu kasuen **% 80,5**a eta %**76**eko kasuetan **Polonia** izan da jatorria) eta **%7**a ***Salmonella typhimurium***i (eskortako hegaztiek eragin dituzte kasuen % 60a, eta %100ean Europa izan da jatorria).

Bestalde, ***Listeria*** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **12,5a**. Inplikatutako produktuei dagokienez: **izokin ketua (% 25a) eta gazta (beste %24a).** *Listeriak* eragindako jakinarazpen guztiek **Europa** jatorria zuten (%**100a**).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak %85**a dira eta medikamentuak %15a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**45e**an eta gehienak (%**66a**) **asiakoak** ziren.

**Metal astun**ei buruz esan behar da **merkurio**ak eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, **% 42,5a**. Ezpata-arraina protagonista izan da %75eko kasuetan eta jatorria Europa %54an.

| ITURRIA | ZK | AGENTEA | ZK(%) | PRODUKTU ERAGILEA | ZK(%) | JATORRI | ZK(%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Mikotoxinak/Biotoxina** | 208 | **Aflatoxinak** | 157(75,5%) | kakahueteak | 77(38,5%) | Asia | 22 (36,5%) |
| **Kutsadura biologikoa** | 358 | ***Salmonella sp.*** | 208 (58%) | | | | |
| | | *Salmonella sp.* | 162 (78%) | sesamoa | 63 (43,5%) | Afrika | 57 (84%) |
| | | *S.enteritidis* | 31 (15%) | oilaskoa | 11 (84,5%) | Polonia | 19 (76%) |
| | | *S.typhimurium* | 15 (7%) | eskorta-hegaztiak | 7 (70%) | Europa | 9 (100%) |
| | | ***Listeria*** | 45 (12,5%) | izokin ketua | 34 (85%) | Europa | 11 (100%) |
| **Kutsadura kimikoa** | 62 | **Gehigarriak** | 47 (76%) | ez da produkturik nabarmentzen | | | |
| **Metal astunak** | 75 | **Merkurioa** | 32 (42,5%) | ezpatarraina | 10 (67%) | Asia | 13 (54%) |
| **Hondakinak** | 107 | **Pestizidak** | 91 (85%) | barazkiak | 43 (42%) | Asia | 27 (66%) |
| | | **Botikak** | 16 (15%) | ez da produkturik nabarmentzen | | | |

Iturria: Comisión Europea RASFF

## ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK

Jakinarazitako iruzurren kasuetatik %47,5a (72 kasu), hau da kasuen ia erdia, etiketan alergenoak ez dituztelako adierazi izan dira.

| ELIKAGAIA | Nº (%) | JATORRIA | Nº (%) |
|---|---|---|---|
| **Plater prestatuak** | 18 (25%) | Europa | 16 (89%) |
| **Konfitegintza, gozogintza eta pastelgintza produktuak** | 15 (21%) | Europa | 10 (66,5%) |
| **Esnea eta eratorriak** | 5 (7%) | Europa | 3 (60%) |
| **Gosegarria (patata frijituak, gaileta gazituak,…)** | 5 (7%) | Europa | 4 (80%) |
| **Osagarriak / dietetikoak** | 6 (8,5%) | Europa | 4 (66,5%) |
| **Bestelako elikagaiak** | 23 (32%) | Europa | 17 (74%) |

Iturria: Comisión Europea RASFF